

AUZOZ AUZO: URIBARRIKO JAIK

ARKO

Arrasate

2001.eko
Irailaren 7a
552. zenb.

DEUSTO

Nafarroako
Unibertsitatea



EHU



Mondragon
Unibertsitatea



Unibertsitatera bidean



*Zure etxeko
txokoak janzten*

Zeramika erakusketa eta salmenta

Uribarri etorbidea, 22 • ARRASATE Tel.: 943 77 11 63

AG AMAGARA

Erdiko Kale 54 • Arrasate • 943 79 09 09

*Maritxu egunean politagoa
ibiliko zara oporretan hartutako
kolorea gordetzen baduzu.*

**Maritxu Kajoiko eskaintza berezia
SOLARIUMA:**
6 saio + 1 opari = 6.000 pta.
Adi! Irailaren 7tik urriaren 5era.

**Eta gainera, gure Estetika Zerbitzuak eskaintzen
dizkizugu:**

- Aurpegi eta gorputzerako tratamendu bereziak.
- Depilazioa argizari bero edo hotzarekin, tratamendu progresiboan.
- Depilazio elektrikoa Blend sistemarekin.
- Makillajea, manikura, betileen permanentea eta tindua.
- Ezpain, begi eta bekainen behin betiko makillajea.
- Medikuntza Estetikoko kontsulta eta terapia bereziak.

urteurrenak

Harresiaren etorkizuna

■ 75. zenb.

(1990eko irailaren 7an idatzi genuen)

Zerkaostetak eta Arrasate Pasealekuak bat egiten duten lekuan, Bediaren etxea zegoen tokian, harresi pusketa aurkitu dute. Gobernu batzordean aztertuko dute zer egin. Agertu den zatia harresitik kanpo ateratzen den muturra denez, itxura aldetik ondo uztea zaila ei da. Harresia dagoen lekuan gordeko da, etxeak egingo dituen enpresarekin erdibideko akordioa egin eta gero.

dik Luis Larios argazkilaria, Angel Galipienzo margolaria eta Jose Boga eskulturgilea etorriko dira.



Eskubaloia zuzendaritza barik

■ 75. zenb.

(1990eko irailaren 7an idatzi genuen)

Arrasate Eskubaloia taldea entrenatzaile eta zuzendaritza barik dago. Are gehiago, taldeko hiru taldeetako kapitainek eskutitz baten bidez aditzera eman dutenez, irailaren 14an baino lehen taldeak Euskal Federakuntzan izenik emango ez balu, desagertu egin daiteke. Joan den ekainean, Arrasate Kirolak eskubaloia taldeko zuzendaritza osatzen zuten zazpi lagunek dimisioa aurkeztu zuten. Orduan hilabeteko epea zabaldu zen hautagai berriak aurkezteko, eta ez zen inor agertu.

besteek esana



Arrasateko kooperatiba esperientziaren azken helburua gizarte ordena eta gizaki berria lortzea zen, autogobernu pertsonal eta kolektiboan oinarritutako giza esperientzia hedatzea. Egungo gizartea ez da kooperatiben genesi garaikoa. Gauzak asko aldatu dira. Frankismoa nagusi izanik kooperatibek oasi demokratikoa osatuko dute. Marko politikoaren aldaketarekin eta ongizate estatuaren ezarrierarekin kooperatibagintzaren ekimen autogestionarioetarako tarte estutu egingo da. Autarkia ekonomikotik globalizazio egoerara pasa gara. Gizarte modernoetan esanahi sistema kolektibo handien gainbehera eman da. Ideologiak motelduta, gizaki pragmatikoa eta idealismo gutxiagokoa da egungo figura nagusia»

Joseba Azkarraga
LANKI IKERTEGIKO SOZIOLOGOA
Euskonews

(2001eko uztailaren 27a)

II. Arte Hamabostaldia prest

■ 75. zenb.

(1990eko irailaren 7an idatzi genuen)

Irailaren 17tik 30era egingo den Arte Hamabostaldian honako hauek parte hartuko dute: Bergarako Dani Laskurain grabatzailea; Altsasuko Txuspo, Pelt Head musika talde kanadiarra harekin izango duela; Xabin Egaña oñatiarrak instalazioa egingo du fotokopia eta margoaren teknika nahastuta; Ana Laura Láz bilbotarrak txapa eta material plastikoen eskulturak erakutsiko ditu; era berean, Madril-

aurkibidea

• Lehen begiratu 3	• Orain eta hemen 8/9	• Kanpoan bizi 18
• Asteko hitzorduak 4	• Txutxumutxuak 10/12	• Kirolak jokoan 19/20
• Herriaren berbak 5	• Asteko gara 13/15	• Kulturaren txokoa 21/22
• Asteari errepasoa 6	• Zaharrak zuhur 16	• Beheko tabernatik 24
• Inkesta 7	• Auzo auzo 17	• Uhinetan barrena 25
		• Foto zaharra 26



Bihar, irailak 8, Extremadura Eguna ospatuko da.



ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otxalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
Arrasate Irratia: 943 71 17 31

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Iker Barandiaran **Kazetariak:** Ubane Madera, Leire Kortabarria eta Xabier Urzelai. **Publikatzaia:** Arantzazu Lagunilla eta Natalia Martinez. (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Sergio Azkarate. **Administrazioa:** Agurtzane Gáinzarain, Ane Berezibar (Tel.: 943 71 23 90) **Disolbua:** Alex Azkarate. **Asteburuetako berriemakileria:** Lorea Aguiniano. **Banaketa arduraduna:** Naiara Odrizola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). ©ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.500. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.



Arrasateko Udalerria
laguntzaia



Gipuzkoako Foru
Aldundia laguntzaia



Eusko Jaurlaritzako
Kultura
Saila laguntzaia

ZERBITZUAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Iguatorialdia 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentroa 943 79 90 11

Larrialdiak

SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
Barikura 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
asteburu eta
jai egunetan egun osoa

Arrasate

Astelehenetik
Barikura 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
Aretxabaleta 943 79 74 58
Aramiao 945 44 53 40

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
. 943 79 78 44
. 943 79 78 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentroak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburutegia

Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia

Zapateria	Domeka
19:00 (elebiduna)	09:00 (gaztelaniaz)
	11:00 meza nagusia (euskaraz)
	12:30 (elebiduna)

San Frantzisko eliza

Zapateria	Domeka
19:00 (elebiduna)	10:00 (gaztelaniaz)
	11:00 meza nagusia (euskaraz)
Domeka	12:30 (gaztelaniaz)
09:00 (euskaraz)	19:00 (gaztelaniaz)

Uribarri parrokia

Zapateria	Domeka
19:00 (elebiduna)	11:30 (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

San Andres eliza

Zapateria	Domeka
19:00 (elebiduna)	10:00 (elebiduna)
	11:00 (euskaraz)
	12:00 (gaztelaniaz)
	13:00 (gaztelaniaz)

Santa Teresa eliza

Zapateria	Domeka
19:00 (elebiduna)	10:30 (gaztelaniaz)
	11:30 San Isidron (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

Santamañako eliza

Jalegun bezpera eta zapateria	Domeka
19:00 (gaztelaniaz)	12:00 (gaztelaniaz)

odol ematea

Odola Sartzeko Euskal Zentroak odola ateratzeko saioak antolatatu ditu irailerako. Datoren asteko saioak 10ean eta 12an izango

dira, ambulatorioan, 16:30etik 20:00etara. Argibide gehiagorako, 945 00 78 78 telefonora dei dezakezue.

uribarri-erguingo jaiak

Uribarri-Erguin auzokoek jaiak ospatuko

dituzte irailaren 7tik 9ra bitartean.

dance jaialdia

Irailaren 7an, egubakoitza, dance jaialdia izango da Etxoste tabernan, 23:00etan. DJ

Kaiet-en eta DJ Alain-en emanaldiak izango dira.

karabana internazionalista

Irailaren 13an, eguena, Kolonbian egin den Karabana Internazionalistaren gainean berbaldia egingo du Amaia Arrizabalagak. Amaiak

karabanan parte hartu du. Monterronen, 19:00etan.

dotakon jaiak

Irailaren 15ean, Dotakon jantzi dendak antolatutako jaialdia izango da Monterron par-

kean. Sarrerak 1.500 pezetan salduko dira.

energia berriztagarriak

Irailaren 29an eta 30ean eta urriaren 12an eta 13an, energia berriztagarrien gainean 32 orduko ikastaroa emango dute Udalak, Ingurumen Sailak, Eskoriatzako Museo Esko-

lak eta Mugarik Gabeko Ingeniariek. Matrikula 3.000 pezeta kostako da. Izena emateko, deitu 943 79 97 84 edo 636 94 49 88 telefonora.

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

Egubakoitza, 7

• Irizar, Erguin

Zapateria, 8

• Amezua, Santa Marina

Domeka, 9

• Ruiz, Magdalena

Astelehena, 10

• Morales, Araba

Martitena, 11

• Irizar, Erguin

Eguaztena, 12

• Amezua, Santa Marina

Eguena, 13

• Ruiz, Magdalena

jokin zaitegi sariketa

Urriaren 31ra arte izango duzue aukera Jokin Zaitegi XV. Itzulpen Laburren Sariketan parte hartzeko. Energia iturriak XXI. mendean gai duten itzulpenak aurkeztu behar dira.

argazki lehiaketa

Udalak eta ASA taldeak antolatutako argazki lehiaketan parte hartzeko epea zabalik izango da urriaren 11ra arte. Aurtengo gaia Gazteen ekimenak da. 13 urtetik 35era bitarteko edozeinek parte har dezake.



Herritarren berbak

Euskal Herritik Californiara

Amaia Martiartu / Disenatzaile grafikoa

ANAAAAAAAAAAAAA!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!

Ze moduz Frisco-tik?

Aii...komadre, lehengo egunian Maitanekin berbetan zera esan eusten, nire aurretik gutunien oso pesimista ikusten ninduela emakumian egoerari dagokionez. Maitane instituto batian irakasle da ta bere ustez neskak mutillak baiño asko be lan-

gilliagoak, arduratsuagoak, eta

abar dira. Noski, baiña gero

hori dana zetako? Lan

munduan gehixenek

kriston zartadak jaso-

teko?. Aukera bardi-

ñak, KARKARKAR!

Hementxe daukogu

gure kooperatiba zora-

garrixa, mundu guzti-

xan mirestua. Bai, zenbat

emakume bertan lanian.

Orain, emaidazue gerentzian

dauden andren portzentajia. Lotsa-

rrixa.

Ta gaixa aldatuz, Ana... zenbat poztu ninduen lesbiana zarela jakititak. Ni be Geoff ez banau izango lesbiana izaten saiatuko nitzake. Eta ia Anetxok be lesbiana irtezen dusten. Nik, behintzat, nahixago dot Anen neskalgunaz tratatzia. Hala ta be, hortik zihar errexau dauketzue gauzak. Hemen jende guztixa oso progrea da istorio honeaz. Nola ez? Lesbianarik ez dago-ta. Ez dira existitzen; ez kalia, ez politikan, ez ekonomian... ez errekonozituak, behintzat. Ta gero, lehengo egunian egunkarixan, Gipuzkoan gay biko-

teei ez dutzela umeak adoptatzeko aukerarik emuten. Ala! Tori hor hipokresia honen adibide bat. "Alien"-ak izango ote?

Ei! Baiña benetako "Alien"-ak Hondarribian. Bertara fan gitzen abuztuan, unibertsitateko lagun bat aurkittu ta pelikulari buruz galdetu nutzen. Noski Jaizkibel kon-

pañiaren alde euela, baiña bera

ez zan mobidan sartzen,

"Alien"-ek jango euen

beldur. Benga! Hori

postura hori. Eske-

rrak Arrasateko

Maritxu Komisi-

ñuari ta fan zan urte-

ko mirarixari. Aupa

Mondra! Hala ta be

tristiana zera da, Ana,

Euskal Herri maillan

mugimendu feminista

haundi bat faltan daukogula.

Jaizkibel koittadua hemen bakar-

bakarrik "Alien" artian, ta ez dago mugi-

mendu bateraturik lagunketako. Munduko

historixan pasau izan dan lez, gaur egun be

iñork ez dusku ezer konpondu bihar; ez era-

kunde ofizialik ez beste hipokritarik be. Geuk

emakumeok borrokatu biharko dogu. Argi

dago.

Tori ba, amaitzeko hurrengo abestixa

Hondarribiko "Alien"-ak omenduaz:

"no cambie, no cambie, no cambie, no

cambie, no cambie, no cambie..."

GORA TAMARA!

Ana... to be continued.

“Euskal Herri maillan mugimendu feminista haundi bat faltan daukogu. Eta bittartien, Jaizkibel koittadua bakar-bakarrik dago “Alien” artian”



aste gazte

■ DIRULAGUNTZAK

• Eusko Jaurlaritzak lankidetzabekak deitu ditu. Unibertsitateko ikasketekin batera ikastetxean lankidetzan aritzeko aukera. Epea: irailak 28.

• Espainiako turismo bekak, ikerketa turistikoa egin edo atzerrian espezializatzeko praktikak. Epea: irailak 29.

• Eusko Jaurlaritzaren eskutik, unibertsitate nahiz unibertsitatez kanpoko ikasketak egiteko izaera orokorreko bekak. Epea: urriak 31.

■ LANA

• Arrasaten biztanleen eta etxebizitzaren errolda egiteko pertsonak behar dira: 16 errolda agente, hiru talde arduradun, eskualde arduradun bi eta eskualde laguntzaile bi. Epea: irailak 14.

• Disneyland-Parisen hainbat postu bete gura dira: garbiketari, harrera, salmenta, azafata, ostalaritza. 18-30 urte bitarteko gazteendako. Frantsesez jakitea beharrezkoa da. Epea: irailak 14.

• Eibarko eta Usurbilgo udal-erakunde biztanleen eta etxebizitzaren errolda berritzeko langileak behar dira. Epea: irailak 12 eta 17.

• Hernaniko Udalean musika begiralea eta irakaslea behar dira. Epea: irailak 17.

• Asteburuan hainbat egunkaritan azaltzen diren lanpostu iragarkien bilduma jasotzen dugu eguaztenero. Interesik edukiz gero, pasa zaitez bulegotik.

■ IKASTAROAK

• Emakume eta gizonen berdintasunaren gainean masterra EHU. Epea: irailak 14.

• Politika ikasketetako aditu-ikastaroa EHUren eskutik, unibertsitate tituludunendako. Epea: irailak 28.

Argibideak:

GAZTE ZERBITZUA

943 77 00 65

USTEAK USTE

Zaharrak berri

Ikasturte berria hasi den arren, gauzak ez dira askorik aldatu. Ustez, behintzat, udan gauza asko gelditu dira, eta ikasturte berriarekin piztu edo berritzen badira ere, atxiloketak ez dira une baten ere eten, eta horien artean, mugimendu okuparen kriminalizazio kanpaina izugarri areagotu da. Bilboko Errekalde auzoan, "kale borroka" zela eta ez zela, Ertzaintzak lagun batzuk atxilotu eta, gazte batek Kukutza gaztetxearekin zeukan loturarengatik, gazteen gune hura itxi egin zuten. Gasteizen, argitxerik nahi izan ez duten istorio ilun baten, gazte mordoa atxilotu eta Gasteizko gaztetxean miaketak eta apurketak egin zituen Ertzaintzak. Ezezagunek Donostiako Antiguoko gaztetxea erre zuten. Bartzelonan, berriz, ETAr babesa eman izanaren akusaziopean atxilotutako neska bat okupa delako, Espainiako gobernuak mugimendu okupa kriminalizatu nahi izan du. Arlo politikoan gertatzen den bezalaxe, edozein argudio erabilita, giza mugimendu "desegokiak" desagertaraztea dute helburu gobernuak.

Iker Barandiaran

astea bi hitzetan

■ Nekazaritza Ministerioa

Eroski Taldeak lankidetzaz hitzarmena sinatu du Espainiako Nekazaritza Ministerioarekin. Helburua da Espainiako zenbait produktu sustatu eta zabaltzea baita produktu horien kalitatea hobetzea ere.

Horren arabera, Espainiako produktuak zabaltzeko ekimen bereziak egingo dira: hala nola, hipermerkatuetan eskualdeko dendak ipintzea edo eskualdeko produktuen kanpaina monografikoak egitea. Horrekin batera, Espainian produzitutako edo eraldatutako produktuen salmenta eta produktu horien esportazioa bultzatuko du Eroski Taldeak. Era berean, Eroski Taldeak komertzializatutako produktuen kalitatea zaintzeko programa abian jarriko dute.

■ Parken lanean

Santa Barbara parkeko zenbait zuhaitz bota ditu Udalak abuztuan. Besteak beste, oso egoera txarrean zegoen haritz bat bota dute, jaus-teak ekar lezakeen arriskua saihesteko. Beste bi platanondo ere bota ditu, oso okertuta zeudelako eta balio gutxiakoak zirelako. Bestalde, mendi magalean akazia batzuk eta haritz amerikar bat bota dituzte. Arrasateko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak prestatutako txostenaren arabera, ez zuten balio handirik, ez apaingarritarako ezta ekologiarako ere.

Era berean, zuhaiztien dentsitatea gutxitu gura izan du Udalak, balio ekologikoa duten zuhaitzek kalterik izan ez dezaten.

Datozen egunotan Monterron parkean hasiko dira zuhaitzak botatzen: haritz bi

eta ezki bat, hain justu.

■ Aldaiko nitxoak

Udalak gogorarazi gura du Aldaiko kanposantuko nitxoak aterako dituela urriaren 1etik aurrera; aurrez, baina, senitartekoez gorpuarekin zer egin gura duten jakinarazi behar diote, herri-tar askok egin duten moduan. Irailaren 15era arte dago hori egiteko. Gorpuarekin zer egin esan ezean, San Kristobal hilerrian dagoen herriko hezurtegian utziko du Udalak.

■ Istripua

Martitzenean, istripua izan zen Eroski pareko biribilean. Furgoneta batek zama galdu zuen. Zorionez, une hartan ez zen autorik pasatu eta ez zen zauriturik izan. Hori bai, ezbeharraren ondorioz, auto ilara luzeak sortu ziren.

■ Etxea pare-parean

Herrian lanak egiteko aprobetxatzen dute abuztua herri askotan, baita geurean ere. Horren ondorioz, ikuspegi aldaketa eta guzti izan da: Maala kaleko Okendo etxea, herriko zaharrentariko bat, bistan-bistan dugu orain, eta kantoia, aldiz, desagertu egin da.



UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikaren erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

M

MEMESA
Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

Ze deitxozu sokatirako euskal taldie deskalifiketari?

Munduko txapeldunei domiña kendu dutze, Espaiñiako ereserkiari kontra egittiagaittik.



Estibaliz González
(Langillie)

Txarto deitxot. Uste dot euskal ereserkixe entzutie merezi euela kirolarixek.



Jon Camacho
(Ikaslie)

Errespetagarrixe da euren burua espaiñiartzat ez hartzeko erabakixe.



Juan Manuel Ugarte
(Jubilaue)

Oso txarto pentsetan jat. Euskal selekziñuen aldekeu naz, sokatiran eta beste edozein kiroletan.



Yago Goronaeta
(Langillie)

Txarto. Norberak elegiduten dau bere nazionalidadie.



Agurtzane Iriarte
(Langillie)

Oso txarto. Oso kirol sustraitua da hemen, euskal selekziñue errekonozidutie lehenengo pausue izen biherko litzake.



Andoni Iñarra
(Langillie)

Legie holan izengo da, baiñe Japonian ez daue jakingo zein dan hamengo egoerie. Nesken jarrerari ondo deitxot.



Edurne Idigoras
(Langillie)

Oso txarto. Euskal Herrixe ordezkaten euzen, eurek irabazi euen eta premixue eurenaz.



Arantxa Madina
(Jubilaue)

Txarto.




DANKAR'T

ILE-APAINKETA ETA ESTETIKA ESKOLA

Irakaskuntza kalitatea
Lanaren ateak zabaltzen dizkizugu

EIBAR Tel.: 943 12 15 18 / 943 12 71 52
Matrikula epea zabalik

MADINA ZURAK

Aroztegia

Olak, aglomeratuak,
kontratxapatuak, tablexa, ateak,
egurrezko leihoak, oin-inguruak,
zangoak, aroztegiko osagarriak.

Zarugalde, 38 • Tel.: 943 79 13 78

Udalak kalte-ordaina ordaindu beharko dio herritar bati

Udalak milioi bat pasatxo pezeta eman beharko dio herritar bati, leku publikoetan segurtasun neurriak ez betetzeagatik. Halaxe jakinarazi zion Bilboko auzitegiak herriko Udalari joan den uztaillean.

Kontua da 1996ko irailean 12an sei urteko neskati-la batek istripua izan zuela Santa Teresa auzoan. Bizikletan zebilen eta hiru metro inguru dituen hormatik behera erori zen. Buruan kolpe handia hartu zuen eta, ondorioz, koman egon zen bost egunez. Gainera, oraindik ere istripuaren ondorioak nabariak dira umearengan.

KALTE-ORDAINA

Istripua eta gero, istripua izan



zeneko gunean hesiak ipintzeko eskatu zuen Santa Marinako auzo-alkatetzak. Horrekin batera, neskatoaren aitak milioi bat pasatxoko kalte-ordaina eskatu zion Udalari, leku publikoan segurtasun neurriak ez betetzeagatik. Udalak ezezkoa eman zuen, eta Santa Marinako gune hura

pribatua zela argudiatu zuen. Orain, ostera, Bilboko auzitegiak erabaki du gune haren erabilera erabat publikoa dela, hortaz, herriko Udala dela haren arduradun eta erantzule. Beraz, orain Udala kalte-ordaina eman beharko dio neskatoari. Esan bezala, milioi bat pasatxo pezeta.

Odol ateratzeak

Irailean odol ateratzeak egiten ari dira Mondragoen. Eta halaxe egingo dute datorren asteko astelehen eta eguaztean (10, 12), hurrengo astelehenean (17) baita hileko azkenengo astelehenean (24) ere. Orduetgia eta lekua ohikoak izango dira, 16:30etik 20:00ak arte anbulatorioan. Osakidetzak odola emateko dei egiten die hiritar gutzietei.



EMAN EZAZU
ZURE ODOLA

ENA gertu

Opor aurretik Euskal Nortasun Agiria eskatu zutenek gertu dituzte txartelak, AEDren egoitzan. Hortaz, lehenbailehen hara joan eta agiriak batzeko eskaera egin die Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak. 50 agiri pasatxo dira.

Oraingoan, Mondragoen 500etik gora agiri egin dituzte eta Euskal Herrian, 26.000. Ander Elortondo AEDko idazkariak adierazi digunez, "aurrez ikusitakoa betetzen ari da Mondragoen", hortaz, balorazioa positiboa da. Edozelan ere, ENA egiteko eskariek gorabeherak izaten dituztela gaineratu digu: esaterako, hauteskunde aurretik eskaera ugari jaso zuten.

Ordutegi eta geraleku berriak

Herri autobusak ordutegi eta geraleku berriak izango ditu irailaren 1etik aurrera. Leintz Garraioak enpresak jakinarazi digunez, orain arte moduan, goizean 07:00etan irten beharrean 08:00etan irten goizteko aurrera, eta 22:00ak arte jardungo du. Zapatuetan, abuztuko lanegunetan eta jaiegunak ez diren egun berezietan

(San Juan, Santo Tomas, Gabonak...), berriz, goizeko 09:00etan irten goizteko aurrera, eta 22:00ak arte jardungo du.

GERALEKUAK

Horrez gain, herri autobusak geraleku berriak ere izango ditu irailetik aurrera. Hain justu, autobusaren bi lineak

Erguin kalean geratzen hasiko dira Izan ere, Gorostizara Kalealdeatik igo eta jaitsi beharrean, hemendik aurrera Erguinetik egingo du bere bidea. Horren ondorioz, 1 lineak Zarugalde kalean zuen geralekua Biribil tabako dendaren parera aldatuko da. 2 lineak, ordea, ez du bestelako aldaketarik izango.

M Altzariak
Diseinua
Apainketa
ARENAZA

Bizkai, 1 • ARETXABAETA
Tel.: 943 79 08 07

Lore

- Lurrindegia • Kabina •
- Fotodepilazioa •

Olarte kalea, 10 • Tel.: 943 79 52 50

**HIES
BERRI**

Tel.: 943 79 26 99

**Hilbera
kafetegia**

Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tel.: 943 79 22 70

Arrasatetik Arantzazura, Gipuzkoako zaindaria gurtzera

Arrasatetik Arantzazurako erromesaldia prestatzeko lanak eginen hasi dira: besteak beste, ibilbidea garbitzen eta txukuntzen. Datorren irailaren 16an Arantzazuko Amaren Eguna izango da, erromesaldia egiteko eguna. Irteera goizeko 06:30ean izango da, Sorkunde Iturritik. Gizaldietako ohiturari jarraituta, mendiz mendi egingo dute ibilbidea: Bedoñatik Urkuluraino, gero Urrexola auzotik Jaturabe urtegiraino eta handik Gesaltzara. 10:00ak ingurua izango da ordurako. Gesaltzan autobusez joan direnekin elkartuko dira. Izan ere, urtero moduan,



autobusez joateko aukera ere izango da, goizeko 09:30ean Arrasatetik irtenda. Eta Gesaltzatik Arantzazura geratzen

diren hiru kilometroak erromes guztiak elkarrekin egingo dituzte, otoitzean eta kantuan.

BEREZIA

Baina aurtengo erromesaldia berezia izango da. Arantzazuko Santutegiak bostehun urte bete ditu, bost mende kristauen erreferentzia izaten. Eta hori, duda barik, garrantzitsua da erromesendako. Era berean, bostehun urteotan Santutegiak egin duen ibilbidea laburtzen duen erakusketa ikusteko aukera izango dute Arantzazura doazenek.

Antolatzaileek jende ugari joatea espero dute, oinez, autobusez zein autoz. Edozelan ere, herritar guztiei parte hartzeko gonbidapena egiten diete.

Arrasatear bat zaurituta Iruñean

Joan den domekan Itoitzekiko Elkartasuna taldeak Iruñean egin zuen protestaldian, 30 urteko UM arrasatear gaztea zaurituta eraman zuten ospitalera. Solidarioak Iruñeko Txistuen plazara joan ziren, eta lau solidario monumentu etara igo ziren, eta Itoizko urtegiaren kontrako eta kartzelan dagoen solidarioaren aldeko pankarta erakutsi zuten. Beste batzuk behean geratu ziren, haiei laguntzen. Pare bat orduz hantxe izan ziren, polizia eta suhiltzaileak etorri ziren arte. Orduan, solidarioak monumentutik jaitsiarazi eta protestagileen kontra ekin zuen

poliziak. UMk adierazi digunez, oso modu gogorrean jardun zuen poliziak: "Hasiertatik erakutsi zuten jarrera oldarkorra, justifikatzerik ez zegoen oldarkortasuna; izan ere, guk, une oro, modu baketsuan jardun genuen, geure aldarrikapenak eginez, besterik ez". UMk hiru kolpe jaso zituen, bat buruan, beste bat eskuan eta hirugarrena bizkarrean. Lurrera ere jausi zen. Buruko kolpearen ondorioz, bost puntu eman zizkieten ospitalean. Orain, poliziaren kontra salaketa ipini edo ez aztertzen ari dira solidarioak euren abokatuarekin.

Txatxilipurdi hasi da lanean

Txatxilipurdi elkartearen ludoteka eta gazte txokoak oraingo astean eta datorrenean zabalduko dituzte. Hain justu, Uribarri auzoko gazte txokoa zabaldu dute lehenik: gaur, egubakoitza, zabaldu dute, auzoko jaiak direlako. Arratsaldean txokolate jana egin dute; bihar, berriz, 19:00etatik 23:00ak arte DJ festa edo dis-

koteka antzeko bat egingo dute gazte txokoa bertan.

Musakolako eta San Andresko gazte txokoak martitzenean, hilak 11, zabalduko dituzte; eta Seberreko eta Santa Marinako ludotekak, berriz, eguaztenean. Ordutegia betikoa izango da: martitzenetik zapatara, 17:00etatik 20:00etara.

Irtenbide demokratikoaren alde

Irailaren 15ean, AABBek antolatutako "Irtenbide demokratikobaten aldeko eguna" ospatuko da Oñatin eskualde mailan. Goizeko 11etatik aurrera,

azoka, futbol partiduak, bazkari herrikoia eta bertso saioak egongo dira. 19.00etan, manifestazioa egingo da eta 21.00etan, kontzertua.

BASATI
TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
TEL. 943 711768

KONTRATAK
IRVROK S.L.
ERAIKUNTZAK
Meatzerreka, 5 bis • Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 - 79 78 14
ARRASATE



BULEGOA SALGAI


Oporretako bueltan, hainbat berrietasun aurkitu ditugu herrian. Txoritxo batek esan digu Zurgalde kalean dagoen Posta eta Telegrafo bulego zaharra salgai dagoela. Litekeena da, hortaz, bere aurrealde zaharra askoz luzaroago ikustetik ez izatea.

ZORIONAK, NESKATXA!

Maitane Muñozek 17. urtebetetzea du irailaren 7an. Lagun taldeak ezustetxo hau prestatu dio, eta zorion agur bero-beroa bidaltzen dio.

Arrasate Irratian kolaboratzaile izan zen Maitane, eta guk geuk ere zoriondu egin gura dugu, nahiz eta badakigun urteurren honek ez diola graziarik egiten...


Ondo pasa, Maitane!



JULIO GALLASTEGI

Lagun Aro aseguru enpresak presidente berria du: Julio Gallastegi arrasatearra. Hala erabaki zuen Administrazio Kontseiluak ekainean. Gallastegik Eduardo Aranari hartu dio txanda. Arana 19 urtean izan da presidente karguan, eta erretiratu egin da, 62 urterekin.



 <p>Pando Errotuloak</p> <p>Gipuzkoa etorbidea 6 (Legarre Pabiloia) Tel.-Fax: 943 79 79 70</p>	Argidun kartelak
	Ibilgailuak
	Stand-ak
	Itsasgarriak
	Biniloa
	Señalizazioak
	Lonak
	Erliebendun hizkiak


BITTORI
ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Espezialitateak: legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

TOURRA EZ DA BUKATU!

Arrasate Irratian ez, behintzat. Izan ere, egiteko dago oraindik elastiko horia, txapeldunarena, zeinek irabaziko duen erabakitzeko zozketa. Gazteen elastiko zuria Ainara Kortabarriak irabazi zuen; berdea, erregulartasanarena, Goiatz Aginagaldek; eta zuria puntutxo gorriekin, mendiko sariarena, Iñaki Trojaolak. Zorionak guztioi!



GURE JARRAITZAILEAK, MUNDUKO ONENAK

Hauek bai leialak, *GOITB*ko, *Arrasate Press*ko eta irratiko jarraitzaileak! Gurekin akordatzen zirela-eta, hainbat postal bidali dizkigute. Ikusle batek Oriotik idatzi zigun, eta Tunisiatik ere idatzi digu irakurle fidel batek. Eskerrik asko!

EUSKARA IRAKASLEAK

Arrasateko udalak euskarazko irakasleen lan-poltsa hauek osatu nahi ditu:

“Aldi baterako kontratazioak egiteko irakasleen poltsa”

“Praktika kontratazioak egiteko irakasleen poltsa”

Oinarriak eta informazioa Pertsonal sailean jaso daitezke.

Izena emateko epea irailaren 14an amaituko da.



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila ■

Jesusi Etxebarria

M U S I K A E S K O L A

2001-2002 IKASTURTEKO
MATRIKULA EPEA ZABALIK: 6tik 28ra

- SOLFEOA, ABESBATZA, PIANOA, AKORDEOIA, FLAUTA, TXISTUA ETA GITARRA KLASIKOA, ELEKTRIKOA ETA BAXUA (azken modalitate guztietan - klasikoa, rock-a, blues-a, modernoa, etab), **solfeoz edo zifraz.**
- 5 urtetik aurrerako umeentzat eta helduentzat.
- **Izena emateko:** 17:00-21:00, akademian astelehenetik ostiralera edo telefonoz.

Iturriotz 32, etxabea. Tel.: 943 79 17 67 / 652 71 38 28



URIBARRIARRAK, MAHAIAREN BUELTAN

Abuztuan ospatu zituzten jaiak Uribarriko nekazari auzokoek, San Bartolomeren ome-
nez. Hantxe elkartu ziren hamaikatxo bizilagun, mahaiaren bueltan, auzo afariarekin eta
segidako giro jatorrarekin goatzera!

OPORRETAKO ARGAZKIA

Hauek ez dituzte postalik bidali, argazkiak baizik! Non uste
duzue ikus daitekeela zingira eder hori? Ez dago urrutira joan
beharririk, Sorian dago-eta. Zingira Beltza esaten diote. Guk,
behintzat, urdin-urdin ikusten dugu.



**Parques
y Jardines**

**Parke eta lorategien
sorkuntza.**

**Lorazaintzako
mantenimendua orohar.**

**Landare-birsorkuntza
hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

Ikasketak hasi aurretik ere buruhausteak


Udaren amaierarekin batera, gazte gehienendako ikasturte berria dator; burukomin mordo askorendako: zer ikasi, non, non bizi, zenbat balio duten ikasketek... hori guztia pentsatu beharra dute, eta euren egokiena dena aukeratu. Eta ez da batere erraza. Hara zer kontatu diguten guri herriko gazte batzuk. Ikasketak non egin erabaki eta gero, ikasturtea hasi baino lehen egin behar izan dutena kontatu digute: etxebizitza bilatu, matrikula ordaindu, autobusak...

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Anderrek, Larraitzek eta Jonek bi egun daramatzate Bilbon bueltaka. Uztailean ez ziren askorik arduratu, eta orain larri dabilta etxea topatu guran. Hiru lagun hauek arrasatearrak dira, baina aurretik ez zuten elkar ezagutzen. Hirurak Bilbora doazenez, etxea elkarrekin hartzea erabaki dute, eta argi daukate beste pisu-kide bat hartu beharko dutela. Bilbora iritsi eta Leioara igotzea erabaki dute, han etxeak topatzeko aukera handia izaten da-eta. Unibertsitateko hormetan iragarki mordo egoten da, eta laupabost apuntatu eta gero, berriro ere Bilbora jaistea erabaki dute. Argi dago Leioa unibertsitatetik hurbilago dagoela, baina entzun dutenaren arabera herri horretan ez ei dago gauza handirik, eta etxebizitza Bilbon hartzea erabaki dute. Duda barik alokairurik

merkeenak Alde Zaharrean eta Santutxuko auzo inguruan daude, 55.000 eta 90.000 pezeta bitartean, baina Deustuan ere begiratu dute.

Hirukotea kontuak egiten hasi da, eta matrikulak unibertsitate pribatuetan baino merkeagoak badira ere (Anderrek, esaterako, Soziologia ikasi behar du eta matrikula 85.000 pezeta inguru kostako zaio), hilero diru dezente gastatu beharko dute. Azkenean, Santutxun hartu dute etxea. Nahiko handia da, eta 80.000 pezeta ordaindu beharko dituzte. Laugarren pisukide bat topatzen badute hogeita mila pezeta ordaindu beharko ditubakoitzak, eta unibertsitatean oharren bat jarri beharko dute. Egun luzea izan da, baina topatu dute etxea. Lekua ez dago gaizki, erosketak egiteko supermerkatua ere hurbil dago. Aukeran zarata larregi; izan ere, Santutxun etxebizitzak



oso altuak dira eta elkarren ondoan daude, baina ohitza izango da kontua. Kontuak egiten hasita, astelehenetan Arrasatetik Bilbora joan eta egubakoitzetan etxera bueltatzeko mila pezeta baino zerbait gehiago beharko dituzte, eta metroarendako hamar bidaiako bonua (900 pezeta) eta unibertsitatera igotzeko Bizkaibuseko mila pezetako txartela erosi beharko dituzte astero.

DONOSTIAN ETA GASTEIZEN GARESTIAGO

Euskal Herriko Unibertsitateko fakultateak Donostia eta Gasteizen ere badaude, baina bi hiri horietan etxea alokatzea garestiagoa da. Gasteiz hurbilago daukagunez, autobusak merkeagoak dira: Donostiara joateko 955 pezeta ordaindu behar dira, eta Gasteizera joateko 390 pezeta. Horrenbestez, Gasteizen ikasten duten arrasatear askok autobusez

EGUZKI GRAF
inprimategia

Industrialdea E-0-4
Telefonoa: 791844
Faxa: 792941

ARETXABALETA

TXIRRI TA
Taberna

Garagardo ona
Giro hobea

Gesalibar auzoa
Tel.: 943 79 10 35

egiten dituzte joan-etorriak egunero, autobus pribatu batekin gehienak. Baina, egia esanda, etxebizitza bat izatea askoz erosoagoa da. Askotan eskolak goizez eta arratsaldean izaten dira, eta egun osoa fakultatean igarotzea ez da oso eroso izaten. Jakina, egunero autobusean ibiltzea etxebizitza bat alokatzea baino askoz merkeagoa da, baita nekagarriagoa ere.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Mondragon Unibertsitateak ere aukera zabalak eskaintzen ditu, eta hiru fakultate bereiz daitezke. Eskoriatzan Humanitate eta Hezkuntza Zientzietako Fakultatea, Oñatin Enpresa Zientzietako Fakultatea eta Arrasaten Goi Eskola Politeknikoa. Hiru fakultate horietan hainbat ikasketa egin daitezke, eta matrikulak, ikasketen arabera, ezberdinak dira. Aurreko urteko datuen arabera, matrikulak 360.000 pezeta eta 690.000 pezeta bitar-


Ikastetxe nagusietan, batz besterik, osoko pentsioan jarduteak, 100.000 pezeta kostatzen da hilero. Diru horrek Ikastetxe Nagusiak eskaintzen dituen zerbitzu guztiak ordaintzen ditu.

tekoak izan ziren. Hiru fakultate horiek aurrerago aipatutakoak baino hurbilago daude, eta hemengo gazteek, behintzat, ez dute etxerik alokatu beharrik izaten. Kanpotik datorren jendeak ikasle-egoitza edo pisu konpartitua aukeratu behar izaten du, eta horrek, ezbairik gabe, hilero-ko gastua nabarmen igotzen du.

DEUSTUKO UNIBERTSITATEA

Mikelek, ostera, Deustuko Unibertsitatera joatea erabaki du, Bilboko bihotzera. Erabakita dauka, gainera, unibertsitateko bertako Ikastetxe Nagusian emango dituela ikasle-egunak. Lagun batzuk konta-

tu diotenez, ikasleen etxebizitza batean bizitzea ez da hark uste zuen bezain erraza eta polita: sukaldean ibiltzen ikasi beharko luke ganorazko jatorduek egin gura izanez gero, garbiketak egin (eta ez edozelakoak, gainera! komuna, sukaldea...denetik), erosketak... Eta, hori gutxi balitz, ez ei da hain erraza pisukideekin ondo konpontzea. Lagunekin kalean ibiltzea eta batera bizitzea oso-oso bestelakoa dela esan diote. Hortaz, ez dauka zalantzarik: Ikastetxe Nagusira joango da, eta kitto. Eman dioten informazioaren arabera, han, egun osoko pentsioan jarduteak, 100.000 peze-



ta kostako zaio hilero. Diru horrek Ikastetxe Nagusiak eskaintzen dituen zerbitzu guztiak ordaintzen ditu: logelaz, komunaz eta jangelaz gain, liburutegia, ordenagailu gela eta gimnasioa erabiltzeko aukera, besteak beste. Eta, diru kontuak ateratzen ez bazaizkio, badaki apurtxo bat urrutiratuz gero prezioak merkatu egiten direla. Esaterako, Derioko Mañarikua egoitzak hiruhilabeteko 125.000 pezeta balio du. Hori bai, horri unibertsitateraino joateak sortzen dituen gastuak gehitu beharko litzaizkioke (gutxi gorabehera, 500 pezeta joan-etorriak, egunero).

ETXEBIZITZAK

Edozelan ere, bestelako aukerak aztertzen ibili da Mikel, Ikastetxe Nagusiarekin arazoren bat sortuz gero kale gorrian ez geratzeko. Alokairuzko etxebizitzak ikusten ibili da. Hiru lagunendako izaten dira gehienetan eta 90.000-110.000 pezetaren artean balio dute, Deustua inguruan. Bil-





eman zuen ikasle garaia. Logelaz gain, jatorduak ere familiarekin egiten zituen eta beti esaten zuen oso gustura zegoela han, etxean moduan. Oraindik ere lagunak ditu familia-

koak. Edozelan ere, Maialenek aukera guztiak aztertu ditu, ez baitauka batere argi non eta zelan bizi. Informazio hau du esku artean:

Ikastetxe Nagusi edo egoitza batek 40.000-100.000 pta.

*Unibertsitateko klub batek 65.000-75.000 pta.

Familia batekin (egun osoko pentsioan) 70.000-80.000 pta.

Familia batekin (logela bakarrik) 30.000-35.000 pta.

Unibertsitateko jangeletan jatorduak egitea 16.500 pta.

Hiru logelako etxebizitza bat alokatzea 80.000 pta.

(prezio hauek guztiak hilerokoak dira)

* Unibertsitateko klubetan 5-6 ikaslerendako bizilekua lor daiteke. Mota horretako bizilekuetan dekanok bat bizi da, arduradun moduan.

Behin non bizi erabakita, Maialenek eskaera egin behar du; jakinarazi diotenez, gainera, Unibertsitateko aurrezterketak baino lehenago egin behar du eskaera, lekua ziur-

tatzeko. Eta gero... Iruñera!

Ubane Madera
Xabier Urzelai

boko Alde Zaharrean, berriz, merkeagoak dira. Eta, esan diotenez, posible da etxebizitza osoa alokatu beharrean logela bakarra alokatzea. 35.000-40.000 pezetatik gora balio izaten du horrek. Egundun osoko pentsioa gura izanez gero, berriz, 75.000 bat pezetaraino igotzen da prezioa.

Eta, jakina, Mondragoera joan eta etortzeko aukera ere hortxe dauka. Euskal Herriko Unibertsitateko doazenekin batera egingo luke bidaia. Eta kasu horretan ere pare bat aukera dauka: PESArekin joanez gero, urtean 85.000 pezeta gehi 25.500 pezeta izena emateagatik ordaindu beharko du. Ostera, bestelako enpresa batekin joanez gero, hileroko 12.500 pezeta ordaindu beharko du.

Edozelan ere, erabakita dauka: Ikastetxe Nagusira joango da. Baina, hasteko, garrantzitsuen egin behar du: matrikula ordaindu. Idazkaritzan eman dioten informazioaren arabera, ikasturte batek

(matrikula gehi tasak) 2000-01 ikasturtean 375.000 eta 665.000 pezeta kostatu zen, ikasketen arabera. Hortaz, aurtentzera antzera balioko du.

NAFARROAKO UNIBERTSITATEA

Nafarroako Unibertsitatea edo Opus moduan ezagutzen duguna da ikastetxe pribatuaren artean dagoen beste aukera bat. Horixe da, hain justu, Maialenek aukeratu duen ikastetxea. Anaiak hantxe ikasi zuen eta Maialenek ere haren bidea segitzea erabaki du. Iruñeko irteera aldean dago unibertsitatea, ospitale inguruan. Prezio aldetik, 200.000 pezeta pasatxotik hasi eta 600.000 pezetara balio du matrikulak, ikasketen arabera.

Bizilekuari dagokionez, han geratzea erabaki du Maialenek, anaiak egin zuen moduan. Izan ere, Mondragoetik Iruñerako bidea nahiko okerra eta luzea da eta egunero horrela ibiltzea gogorra da. Anaiak familia baten etxean



Pertsona nagusiak behar dira ikasleekin bizitzeko

Mondragon Unibertsitatearen ikasturtea hastear dago eta horrek, jakina, gazte mordoak ekarriko ditu gure herrira. Asko eta asko hemen biziko dira ikasturtean zehar, Biteri Ikastetxe Nagusian edo lagunekin etxebizitzaren bat konpartitzen. Horrelaxe izan da orain arte. Baina ia zoko ikasturtean hasita, ikasleek beste eskaintza bat ere badute: 60 urtetik gorako pertsonekin bizitzeko aukera.

Beste leku batzuetan egiten duten moduan, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Arrasateko Udalak eta Mondragon Unibertsitateak ikusi zuten aukera ona izango zela ikasleek eta pertsona nagusiek etxebizitzak konpartitzea. Euren ustetan, bai batarendako zein bestearendako esperientzia aberasgarria izango litzateke; eta gainera, horrela, askotan pertsona nagusiek jasaten duten bakardadeari aurre egin liezaiokete eta, jakina, edadetuari laguntzeko ere bide egokia izango litzateke. Ez hori bakarrik,



izan ere, ikasleak edadetuarekin egoteaz gain zerbaitean laguntzen badio (erosketak egin, nonbaitera lagundu...), ordainsaria jasoko du hilerok.

ERRETIRATURIK EZ

Eta Mondragon Unibertsitateak egindako deiari jarraituz, dagoeneko hiru gaztek egin dute pertsona nagusiekin bizitzeko eska-

era. Baina ez dago erretiraturik horretarako prest. Biteri Ikastetxe Nagusiko zuzendari eta programa horren arduradun Iñaki Madinabeitiak adierazi digunez, ibarreko udal guztietara deitu dute eta guztietan ezezko erantzuna jaso dute, pertsona nagusiek ez dutela horrelako eskaerarik egin, oraingoz, behintzat.

Bestelako lekuetan izandako esperientziak ikusita, espero dute gure ibarrean ere edadetuak eskaerak jasotzen hasitea. Pertsona nagusiekin bizi gura duten gazteek edo gazteekin bizi gura duten pertsona nagusiek Biteri Ikastetxera jo beharko dute izena emateko: 943794700 da telefonoa eta ordutegia, berriz, 11:00etatik 12:30era eta 14:30etik aurrera.



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Umore giroan Uribarri kale-auzoan

Udako denboraldiari txanda hartuta, badatoz iraileko lehenengo jaiak: Uribarri kale aldekoak, hain justu ere. Auzo horretako nekazari jaiak abuztuan izan ziren, baina, urtero bezala, bi alditan ospatzen dituzte Uribarrikoek auzoko jaiak.

HURRENGOAN, BATERA?

Hiru jai egun izango dira, hilaren 7an hasi eta domekara bitartean. Aurreko urteotako ekintzek erantzun ona izan dutela-eta, jai batzordeak aparteko aldaketarik ez egitea erabaki du. Hori bai, datorren urteotarako berritasun handi eta berezia egiteko asmoa eta gogoia dute auzokoek. Hala onartu zigun Uribarri-Erguingo auzo-alkateak, Felix Iturbek: "Datorren urtean Uribarriko jaiak auzoko guztiok batera ospatzea gustatuko litzaiguke, hau da, abuztu bukaeran, San Bartolome Egunean". Jai batzordeak ilusio handiz prestatu ditu aurtengo denbora-pasak, adin guztiatako auzotarrei ondo pasatzeko hainbat aukera eskaintzeko asmoz. Hortxe izango da baita auzoko nagusiei gainerako



Ziur horrelako koadrilak aurten ere ikusi ahal izango ditugula Uribarrin.

bizilagunek egingo dieten omenaldi hunkigarria ere, auzo-alkateak nabarmendu duenez.

EGUBAKOITZETIK HASITA

Oraingo, behintzat, baserri-tarrek eta kaletarrek zeinek bere aldetik antolatu dituzte jaiak. Kalekoak hilaren 7an hasiko dira, 17:30ean. Gazte-txoendako txokolate jana izango da ordu horretan. Segidan, auzoko hildakoen aldeko meza izango da, eta 19:00etatik ilun-

tze aldera bitartean, adin guztiendako ekintzak: erraldoi eta buruhandiak lehenengo, txikiteoa segidan eta erretiratuendako afaria hirugarrenez. Eguna ondo amaitzeko, auzotar guztiendako dantzaldia izango da erretiratuena taberna ondoan, Gau Alai taldearen eskutik.

UMEAK ETA KIROLAK

Zapatuan, goizean goizetik izango dira ospakizunak: hala nola, Txiki Txokoa, jolas, tai-

ler eta puzgarriekin; erretiratuena mus txapelketa; txikiteoa; alkohol bariko dantzalekua; eta Kaixo taldearekin dantzaldi orokorra.

Domekan kirola iritsiko da, eta berau izango da, gainera, eguneko protagonistetako bat. Atletismo lehiaketak jokatuko dira goizean, eta eguerdi partean herri kirolak. Eguna -eta jaiak- bukatzeko, animalia ikustaldia, magia saioa, Txatxilipurdiren ikuskizunak eta dantzaldia izango dira.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismok
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

Iñigo Zubizarreta: «Egin beharrekoa egin ondoren, Euskal Herrira bueltan nator, zalantza barik»

Hogeita sei urteko arrasatear honek albaitaritzaz ikasketak egin zituen Zaragozan eta gero jazz eskola baten jardun zuen. Ondoren, Bostongo Berklee Musika Eskolan gitarraren lizentziatura egitea erabaki zuen. Hantxe dihardu duela ia bi urtetik hona.

- Noiz erabaki zenuen Bostonera joatea? Eta zein helbururekin?

- Duela bospasei urte erabaki nuen EEBBetara joatea gitarraren eta musika ikastera. Bostonera joatea, berriz, duela hiru urte erabaki nuen.

- Nola izan zenuen eskola horren berri?

- Zaragozako gitarraren irakasle batek, Jose Luis Arrazolak, esan zidan zerbait serioa egin gura izanez gero, hara joateko. Oso eskola ona da. Steve Vai, John Petrucci... handik igaro dira.

- Noiz heldu zinen Bostonera eta zein izan zen lehenengo inpresioa?

- 2000ko urtarrilean heldu nintzen eta hasieran zeharo galduta nengoen; matrikula egin da neukan, besterik ez. Erreferentzia bakarra nire lagun baten ezaguna zen. Lehenengoko hiru egunak hostal narrats batean igaro nituen eta gero etxebizitza baten sartu nintzen.

- Erraza izan da jendearekin harremana izatea?

- Denbora gehiena eskolan eta etxean igarotzen dut, baina mundu osoko jendea ezagutu dut. Han oso garestia da bizitza eta, gainera, ikasketetan oso murgilduta nago, horregatik ez naiz ia irtetzen. Hala ere, mundu osoko jendea ezagutu dut eta, adibidez, musika jotzeko jendearekin elkartzen naiz.

-Egon zara Euskal Etxeren baten?

- Ez. Uste dut Boston inguruan badagoela bat, baina ez naiz han egon. Egia esan, ez naiz askorik mugitzen, baina txangoren bat egin izan dut: New Yorkera eta beste hiri batzuetara.

- Zenbatean behin etortzen zara Arrasatera? Eta zenbat denbora igarotzen duzu aldi bakoitzean?

- Gabonetan eta udan etortzen naiz, bakoitzean hilabete inguru.

-Arrasate faltan sumatu duzu? Herriminik-edo izan duzu?

- Bai, lagunak, familila, txorizoa, Ekaitzeko kafeinagabeak, parrandak... gauza asko. Hona etortzeko desiatzen egoten naiz. Arrasate bera ere gogoan izaten dut, herri lasaia da-eta. Boston, berriz, oso estresagarria da. Gogorra izaten da, era berean, alde egin behar dudanean lagunei agur esatea, Baños negar egiten ikustea...

- Ikasteaz gain, beste zer-baitetan ere bazabiltza, ezta?

- Bai, jatekete batean lanean ibili naiz, baina jabeek esplotatu egiten gintuzenez utzi egin dut. Orain, auzune italiar batean zerbitzari lan egiteko asmoa daukat. Horrez gain, jendearekin elkartu eta musika jotzen dut. Une honetan neska batekin elkartu eta talde bat eratzekotan gaude, klubetan jo eta diru apur bat irabazteko. Whit-



«EEBBak ez dira estali gabeko autoak eta neska politak, aurkakoa baizik»

ney Houston-en, funk-aren eta jazzaren nahasketa izango da.

- Zer iritzi daukazu EEBBez?

- Gauza batzuk ondo daude, irakaskuntza, esaterako, baina beste batzuk ez. Nire ustez, estatubatuarrak ez dira ondo bizi, lanerako bizi dira, etxean, irteten direnean ez dakite ondo pasatzen eta, gainera, 21 urte arte ezin dute edan. Legeari kasu handia egiten diote, armen beldur dira eta ez dira solidarioak. Eskerrak kanpo-

ko jende asko dagoela eta balio desberdinak dituztela. EEBBak ez dira estali gabeko autoak eta neska politak, saltzen duten moduan, aurkakoa baizik. Boston Donostia antzekoa da: txikia, polita, baina oso aspergarria. Eskaintza kultural polita dauka baina oso garestia da..

- Inoiz hegoamerikartzat hartu zaituzte?

- Behin baino gehiagotan, baita judutzat ere.

Arrasatek jokia, Aloñak golak

Aurtengo Arrasate Hiria Txapelketa Oñatiko Aloña Mendi taldeak eskuratu du, eguaztean Mondra taldeari 0 eta 2 irabazi eta gero. Norgehiagoka ez zen oso ikusgarria izan, aurreboraldian zaila izaten da eta joko ona ikustea. Azkartasuna eta jokaldiak amaitzerakoan zorrotasun eza nabaritu zen, eta bi taldeak zelaian lekua ez galtzearen egin zuten lan. Aukera garbi gutxi izan zen, baina Aloñak izan zituenak hobeto aprobeztatzen jakin zuten. Hogeita hamargarren minutuan epaileak Mondraren aurkako penaltia adierazi zuen,



eta zelairatu berria zen Julio aizainak ezin izan zuen ezer egin.

Aloñak ez zuen Mondrak baino joko hobea egin, alde-

rantziz, etxeko taldea izan zen baloiaren jabetza izan zuena, baina atsedena dirajoan aurretik, korner batean Mondrako jokalaria izandako Asier Lopezek, buruz, huts eta bikoa egin zuen. Bigarren zatian ez genuen apartekorik ikusi, nahiz eta bi taldeek izan zuten aukeraren bat edo beste markagailua birlabildu edo estutzeko, baina argi geratu zen aurreboraldia zela, eta freskotasuna falta zutela. Aloña Mendi taldeak oraingo asteburuan hasiko du denboraldia, baina Raulen mutilek oraindik bi aste dituzte denboraldia prestatzeko.

Kenci Arrasate denboraldiari aurre egiteko prest

Arrasateko taldea denboraldi berriari aurre egiteko prest dago, eta hori erakusteko aukera paregabea izango du gaur, egubakoitzea, 20:30ean. Etxeko taldeak Donostiako Atletico San Sebastian talde sendoren aurka neurtuko ditu indarrak. Talde donostiarrak LEB maila profesionalen jokatu-ko du aurten; hortaz, Arrasateko taldearentzat azterketa ezin hobea izango da. Saski-

baloian denboraldi hasiera geroago eta hurbilago dago, eta bitartean Iker Zubiriaren mutiak lagun arteko partiduekin konformatu beharko dira. Hala ere, entrenatzaile berriari bikain datozkio lagun arteko norgehiagokak, batez ere talde bere nahietara moldatzeko.

EZIN BEHAR BEZALA ENTRENATU

Herriko saskibaloia eta esku-

baloi taldeak ez daude batere konforme, aurreboraldia prestatzeko gura baino arazo gehiago izan dute eta. Entrenatzeke arazoak Musakolako Kiroldegiko lanengatik izan dituzte, izan ere, han jokatzeko diren lagun arteko areto futbol partidua Iturripeko kantxara pasatu dituzte, eta, horrenbestez, herriko kirol taldeek arazoak izan dituzte hantxe entrenatzeko.

Kirol materialak euskaraz

Kirolean lan egiten dutenek aspaldi sumatu zuten kirola eta euskara, biak hala biak, bultzatzeko beharra. Arlo horretan euskarazko kirol materiala eskasa dela eta, Deba arroko udalek oinarritzko kirol materialak euskaraz sortzeko bekak atera dituzte, Kirola euskaraz planaren barruan. Beka horien helburua da hiru arlotan fitxa didaktikoak sortzea: naturako ekintzetan, oinarritzko soin hezkuntzan eta xakean, hain justu ere. Fitxa horiek eskola-kirolean, heziketa fisikoan, klubetan eta gimnasioetan ume eta gazteekin dabil-tzan teknikari eta irakasle- endako dira.

Beka eskuratzen duenak 500.000 pezeta jasoko ditu, eta lana egiteko bost hilabete izango ditu. Edozeinek eskura dezake beka, eta lanen ebaluazio-batzordea Gipuzkoako Kirola Euskaraz batzordeko ordezkariak, Deba arroko Euskara eta Kirol teknikariak eta arlo bakoitzeko adituek osatuko dute.

JENDEA KONTRATATZEKO DEIALDIA 201eko Biztanlego eta Etxebizitzen Errolda

Estatistika Institutu Nazionalak kontratu hauek egingo ditu:

- 16 Errolda-Agente: Urriaren 15etik abenduaren 28ra arte.
- 3 Talde-Arduradun: Urriaren 15etik urtarrilaren 15era arte.
- 2 Eskualde Arduradun: Irailaren 17tik urtarrilaren 31ra arte.
- 2 Eskualde Laguntzaile: Urriaren 29tik urtarrilaren 31ra arte.

Aurreselektzioa udalak egingo du. Behin-betiko aukeraketa Estatistika Institutu Nazionalak egingo du.

IZEN EMATEA ETA INFORMAZIOA:

Arrasateko Udaleko Pertsonal sailean, irailaren 3tik 14ra bitartean, 10/14 ordutegian.

HAUTAKETA FROGAK:

- A) Aurreselektzioa: (Udalak irailaren 19an) B) Behin-betiko selektzioa (I.N.E.-k)
- Herriko ezagutza. - Euskara. - Elkarrizketa.



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila ■

ZUBIZARRETA LANTEGIAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

Monte taberna

Maalako arrabala, 11
Tel.: 943 79 20 56

RAUL LEIBA (MONDRA TALDEKO ENTRENATZAILEA)

« Aurten postu bakoitzean lehia handiagoa izango da »

Taldearekin bigarren denboraldia izango duzu aurten-go. Nolakoa izan zen aurrekoa?

Egia esatearren, lehen urtea zirkunstantziala izan zen. Neure buruan konfiantza handia neukan, eta argi neukan mutil horiekin zer edo zer polita egin zitekeela. Hala ere, argi geratu zen oso talde gaztea zela, eta, horrez gain, jokalaria batzuk beste talde batzuetara joan ziren. Denboraldi hasieran taldeari asko kostatu zitzaion joko ona egiten hastea, baina bigarren itzulirako gauzak asko aldatu ziren eta nahiko txukun ibili ginela uste dut.

Entrenatzaile izatea lan edo zaletasun moduan hartzen duzu?

Orain dela bi urte kadete mailako taldea entrenatzen hasi nintzen, eta orduan zaletasun moduan hartu nuen. Bizkarraren arazoak nituen eta ezin nuen jokatzeko jarraitu, hortaz, entrenatzaile moduan hastea erabaki nuen, eta, bide batez, klubari lagundu. Aurreko urtean, Juanina Garaik Bergarako taldera joatea erabaki zuen, eta zuzendaritzak lehen taldearen gidaritza eskaini zidan. Erronka polita izango zela pentsatu nuen eta bi urterako sinatu nuen. Ea egindako lana aurten ikusterik dagoen!

Jokalaria edo entrenatzaile moduan gusturago?

Ezberdinak dira, ez nuke jakin gero zer erantzun. Agian jokatzeko gehiago gozatzen da. Entrenatzaile moduan gauzak beste modu batera ikusten dira, eta gehiago sufritzen da. Gauzak kanpotik ikusten dira,



Raul Leiba Mondra taldeko aurrelaria izan da hainbat urtean, baina bizkarreko minak zirela-eta futbola utzi behar izan zuen. Orain dela bi urte kadete mailako taldea entrenatzen hasi zen, eta Juaninak talde nagusia utzi zuenean zuzendaritzak berari proposatu zion taldea hartzea. Erronka ez zen makala; talde gazte bat hartu, eta jendeak eskatzen ziona betetzea, gutxienez preferente mailara igotzea, hain justu. Ezin izan zuten lortu, baina bigarren itzulian joko ona egin eta aukera badagoela sinetsarazi ziguten. Aurten, jarraitzaileek alderantziz egin beharko lukete. Gutxiago eskatu, baina taldea gehiago babestu.

zuzenketak egin eta aholkuak ematen ibili behar zara. Jokalaria zaren horrelakoak ez dituzu ikusten.

Behin baino gehiagotan entzun behar izan duzu tal-

dea maila horretatik lehenbailehen irten behar dela. Aurten bai?

Ni ez noa ezer esatera. Badakigu oso zaila dela maila igotzea; izan ere, talde bakar batek eskura dezake goiko mailara-

ko txartela, eta talde asko dago. Gora igotzeko, denboraldian oso erregularra izan behar zara. Nire ustez, aukera asko ditugu, baina hasiera ona egitea oso garrantzitsua izango da, jokalariek gogotsu jarduteko. Argi daukat taldea goiko postuetan izango dela. Non? Ahalik eta goren.

Talde gazteegia akaso?

Agian bai, aurreko urtean oso argi geratu zen hori. Aurten, urte bat gehiago daukate, maila ezagutzen dute eta, gainera, fitxaketa batzuk egiten saiatu naiz. Arkaitz Gaintzarain gurekin izango da, horrela, atean lehia handiagoa izango da. Horrez gain, Iban Aranguren eta Ruben Rueda ekartzen saiatu naiz. Lehenak futbola utzi zuen orain hiru urte, baina orain oso gogotsu dago, eta Ruben Rueda Aloña Mendin jokatzeko aritu da. Oraindik ezin da ezer esan, baina zorte apur batekin jokalaria horiek gurekin izango ditugu, eta biek ere beteranotasuna emango diote taldeari. Esango nuke aurten taldea osoa izango dugula. Postu bakoitzean lehia handiagoa izango da, eta talde helduagoa izango dugu.


Beste taldeek jokalaria kenduko dizkizueten beldur zara?

Aurten ez; izan ere, dagoeneko taldeak eginak daude, baina egia esanda, iaz izan nuen beldurra. Hainbat jokalarik eskaintzaren bat edo beste izan zuten, baina eurekin berba egin eta argi utzi zidaten Mondra taldea preferente mailara igotzeko lan egingo zutela.

"Mailaz igotzeko, taldea oso erregularra izan behar da"

Ramon Arantzabalek erakusketa zabaldu du Donostian

Ramon Arantzabal margolari arrasatearrak erakusketa zabaldu du Donostian, Boulevard I aretoan. Irailaren 7tik 30era bitartean izango da hura ikusteko aukera. Berrogeita hamar bat oihal izango dira.



Arantzabalek. Baina badago alderik: "Oraingoan, marrazkia desberdina da. Figuratiboa izaten jarraitzen du, baina abstraktismoa da nagusi", diosku Ramonek. Kolore asko eta ikusgarritasun handikoak erabili ditu margolariak: urdina eta hori-laranja dira bere gustukoak.

ORDUTEGIA

Ramon Arantzabalen lan berriak ikusi gura badituzue, hona hemen bisita ordutegia: astelehenetik zapatara bitartean, 18:00etatik 21:00etara, eta domeka eta jaiegunetan, 11:30etik 13:30era eta 17:00etatik 21:00etara.

Helduen matrikulazio epea zabalik

Helduen Heziketa Iraunkorreko ikastetxeak informazio eta matrikulazio epea irekiko du irailaren 14an. Egun horretatik aurrera eman ahal izango duzue izena 2001-2002 ikasturterako. Ikastetxea Ferrerías kaleko 28. ean dago. Telefonoa 943 77 11 72 da. Gainera, urte osoan zehar duzue taldeekin bat egiteko aukera.

Extremadura Eguna

Irailaren 7an eta 8an, Corazón de Encina kultura elkarte extremadurarrak Extremadura Eguna ospatuko du.

Egubakoitzean, elkarteko bazkide guztiondako idazketa lehiaketa izango da, txiki, gazte eta helduen kategorietan. Segidan, txikienendako, jokuak eta txokolate askaria izango dira.

Zapatuan, urtero egiten duten bezala, elkarteko partaideak Landako zingirara joango dira, egun pasa egitera, 10:30ean. Han, sardinak jan eta ardoz bustiko dute ezterrira; gero, ohorezko topa eta Extremadurako ereserkia abestuko dute. Horren ondoren, kuartrola, txintxoia, gazpatxo, kaldereta... lehiaketak izango dituzte aukeran Corazón de Encinako bazkideek.

Bertsolariendako ere, ikasturte hasiera

Zabalik da AEDk urtero antolatzen duen bertso eskolan izena emateko epea. Asmoa da ikasle talde berria sortzea. Adinaren arabera, multzoak eratuak dituzte: alde batetik, 12 eta 15 urte bitarteko gaztetxoak; eta bestetik, 16tik gorakoak, adin muga barik. Lehendik zegoen nagusien taldeak jarraitu egingo du, Oihane Perea irakaslearen gidaritzapean.



IZENA EMATEA

Izena emateko epea zabalik dago urriaren 5era arte, eta matrikula 3.500 pezeta kostako da. Kopuru horrekin urte osoko ekintzak ordainduko dira; ez bakarrik eskolak, baita antolatzen diren bestelako ekitaldiak ere. Parte hartu gura baduzue, zoazte AEDren egoitzara, Pablo Uranga kaleko 6. zenbakira, edo deitu 943 71 21 17 telefonora.

ML
ILE APAINDEGIA
 Alfonso X jakintsua, 1 behea
 (Grupo San Juan)
 Tel.: 943 79 79 65

Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak

Otalora Lizentziatua, 40-42
 Tel.: 943 79 53 32

AGR
 Garcia Ripa
ERREFORMAK S.L.

Erakusketa eta biltegia:
 Kale txiki, 3 behea (Musakola)
 Tel eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC
 Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia
 Leihoak
 Ateak
 Armairu enpotratuak
 Armairu-fronteak
 Mota guztietako zoruak
 Lixatua eta bernizatua
Osagarriak
 Neurriera egindako alfonbrak
 Gortinak, mahai eta aulkiak

Goikobaluren atea, zabalik

Goikobalu abesbatzak ikasurte berriari ekin dio. Hori dela eta, abesbatzak eurekin bat egiteko deialdia zabaldu du: "Gurekin bat egin gura duenak zabal-zabalik ditu atea", diosku abesbatzako zuzendari Iñaki Maidaganek.

ZELAN PARTE HARTU?

Goikobaluko partaide izan gura baduzue, entseguetara agertu edo kideren bati izena ematea baino ez duzue. Goikobalu Gazte eguaztenero aritzen da, 19:00etan, Gazteluondon; Goikobalu Txiki, eguenetan, leku eta ordu bereetan; eta nagusien taldeak martitzenetan, 21:00etan, Arrasate Musikalen, eta eguenetan, 20:00etan, Gazteluondon, ditu entseguak.

Techno jaialdia Etxoste tabernan



Olarte kaleko Etxoste tabernak techno-house dantza jaialdia antolatuko du irailaren 7aren gauerako. Egubakoitz horretan, 23:00etatik aurrera, bi disko jartzailek girotuko dute gaua: DJ Kaiet arrasatearrak eta DJ Alain donostiarrak, hain justu ere. Arrasatearra geroago eta ezagunagoa da, ez bakarrik Arrasaten, baita kanpoan ere; eta bigarrena "izen handiko disko jartzailea da", tabernako arduradunen esanetan.

Ez da lehenengo aldia Etxostek horrelako jaialdiren bat antolatzen duena. Ekainean izan zen azkenengoa. Dena dela, egubakoitzero antolatzen dute zer edo zer berezia. Tabernarien esanetan, "jendearen erantzuna oso-oso ona izaten da".

2001-2002 EUSKARA IKASTAROAK

Eskaintza

EUSKALDUNTZE maila guztiak, ALFABETATZE, EGA eta HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK
Ikastaro bereziak: merkataritza, sakontze, Arrasateko euskara...
Autoikaskuntzarako multimedia sistema "hezinet"

Erritmoa

Egunean ordu bat, ordu 1,5, 2 ordu...
Astean 2, 3, 4 eta 5 egunetan.
Txandakako taldeak.

Beka sistema daukagu. Informa zaitez!

Bulego ordutegia

Goizean: 10:00-13:00
Arratsaldean: 15:00-18:30

Matrikulaldia

Irailaren 3tik 21era.



ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA

Arimazuri plaza, 2 (Eskola Politeknikoaren ondoan) 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 70 77 • Faxa: 943 79 91 43
euskaltegi@arrasate-mondragon.net

HABEren dirulaguntzaz.



GRUPO

RKUZ

1950-2001




ETXE MOBEL
MUEBLES ALTZARIARI

Araba Etorbidea 5 •
Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE




RKUZ
ALTZARIARI


Araba etorbidea 20 •
Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



RKUZ
ELEKTRAGAILUAK

Asunción, 1 •
Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

expert 



RKUZ
SUHARDE INTEGRALA

Mitarte 3 •
Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

FAGOR 

50 urte baino gehiago gure bezeroen zerbitzura.

Eskerrik asko emandako konfiantzagatik



Agustin Algaba Totem dendakue

Hogeita hamalau urteko mondragoetar honek Mekanika ikasketak egin zittuen, baiñe bere-

halaxe konturatu zan beste zerbait egin bihar euela eta jantzigintza ikasi euen. Hamazortzi urtekin denden munduan hasi zan, eta istripu baten ondorioz, diru apur bat eskuratu eta disko denda bat jarri euen. Lana zala-eta Ingalaterrara asko biajetan euen, eta hantxe Martens botak erosten hasi zan, gero hamen saltzeko asmuakin. Ez zan negozio makala izen, eta gaur egun, bi dendaz aparte, zenbait proiektu dauko esku artien.

-Esaidazu guzur bat.

Futbola ez jat bat be gustetan.

-Amets bat.

Ni zoriontsu izetie, eta neure ondokuei be zoriontsu izeten lagunketie.

-Amets txar bat.

Burue galtzie.

-Egin dozun azken biajie.

Huelvara. Lana dala-eta asko biajetan dot.

-Txartel horixe, zeñei?

Kale egin dustien lagunei.

-Eta gorrixie?

Baitta euri be.

-Film bat? Liburu bat? Disko bat?

Alguien voló sobre el nido del cuco / El clan del oso cavernario eta *El Padrino*, adibidez / Momentu bakoitzerako musika bat.

-Animalixe izetekotan, zein?

Argixe eta bizkorra dan bateron bat: puma, adibidez.

-Drogak legalizauko zittukie?

Bai.

-Eta prostituziñue?

Baitta be.

-Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Bixek.

-Ze gustetan jatzu Mondragoetik?

Zigorrola.

-Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Hurbillagoe izeten ahalegindduko nitzake, herritarrekin gehixago egoten.

-Eta lehendakari izengo bazitze?

Ez nitzake lehendakari izengo.

-Bizio bat?

Asko.

-Ze gehittuko zeikixo Arrasate Pressei? Eta ze kenduko zeikixo?

Gaur egungo arazuekin harremana daukien elkarrizketa sakon gehixago egingo nittuzke. Ez neuke ezer be kenduko.

-Mendi bat?


Udalatx. Mendi zerrak be asko gustetan jat.

-Bizitzera hiri batera juetekotan, nora?

Madrillera.

-Ezagutu dozun pertsona interesante bat.

Geure aitte.



“Jende askori lana emutie gustauko litxakit, baiñe neure burue ez neuke jefe moduen ikusi gureko”

-Eta ezagutu nahiko zeunkeena?

Rosendo.

-Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeñekin?

Ez nitzake sekula be tranpan ibilliko.

-Telebisiñoko programa bat? Eta irratikue?

Documentos TV, eta Canal+ kateko iragarkixek, sekulakuek die. Irratixen Cadena 100 entzuten dot.

-Zertan gastauko zeuke dirue?

Gustora ipiñiko neuke etxien musika estudixue.

-Abzuetuen zabalik euki dozue dendie?

Ez.

-Eta oporretako bueltie gogorra izen da?

Ez, honezkero ohittute nago.

-Lanien ze da gutxien gustetan jatzuna?

Telefonuek joten dauenien.

-Gaurko gaztie modari begiraketan dutzie?

Uste doguna baiño gutxiago, modia dendok erabakitzen dogu, eta batzuetan eurek onartu egitten daue eta beste batzuetan ez.

-Ze ez zeuke sekula be jantziko?

Traje militarra ez neuke barrero ipiñiko.

Astelehenetik aurrera berriro ere Arrasate Irratia entzungai

Irailaren 10ean itzuliko da uhinetara Arrasate Irratia. Astelehenetik aurrera berriro ere entzungai izango da herriko irratia. Irailean udako programazioa eskainiko dizue. Goizeko 09:00etan albistegia, eta 09:30etik aurrera *Udako Koktelera* saioa eguerdira arte. Gainera, goizetan irratia entzuteko aukerarik ez duzuenondako, arratsaldero errepikatzen da goizeko saioa ordu bietatik aurrera.

Datorren astean, era guztietako elkarrizketak izango dira. Astelehenean, goizeko 11:30ean, Amaia Arrizabalagak Kolonbian bizitakoa

kontatuko digu. Amaiak Bizitzaren Aldeko Karabanan parte hartu zuen. Euren helburua Bolivar aldera botikak eta elikagaiak eramatea zen, baina paramilitarrek arazo bat baino gehiago jarri zieten. Martitzenean, Arantzazuko gorabeherak izango ditugu hizpide goizeko 10:30etik aurrera. Eguaztenean, berriz, Arrasatera ikastera etorri eta pertsona nagusien etxetara bizi izatera joango direnekin egongo gara. Eguenean, Dotakon jaia zelakoa izango den jakingo dugu. Eta egubakoitzean, zinemako azken nobedadeak jakingo ditugu.



TOURREKO BIZIKLETA ZEINENDAKO?

Mikel Lizarralde dendak emandako bizikleta zozkatuko dugu astelehen goizean. Bizikleta ez eze, mailot horia ere jasoko du Arrasate Pressko porraren irabazleak. Guztira 55 lagunek asmatu dute aurtengo Toureko porra. Astelehenean jakinaraziko dizuegu nor den irabazlea Arrasate Irratiak zuzenean egingo duen zozketan, goizeko 11:00k baino apurtxo bat lehentxoago.

Aho zabalik geratuko zara Arrasate Irratian!





Herriaren Egita-
mu Orokorre-
an erabaki
dutenez, GEL-
MA lantegia
lekuz aldatuko dute. Erreka-
ren bestaldean, Eskualdeko
Ospitalea dagoen inguruan,
beste lantegi bat eraikiko dute
Gelmakoek eta han jardungo
dute lanean. Hori bai, orain

dagoen eraikina bere horretan
utziko dute, bulegoetarako-
edo. Izan ere, lantegi hori onda-
re historiko-industrial da
Mondragoerendako, ELMA
gure herrirako garrantzi bene-
tan handia izan duen lantegia
izan da-eta. 1924. urtean sor-
tu zen eta lehenengo lantegiak
eraiki, erreka-aren bestaldean,
tren geltokiaren parean. Etxe-


barria, Leibar, Mendizabal eta
Arkaux izan ziren sortzaileak,
hortik izena: ELMA. Gero,
1930-31 urtean eraiki zuten
orain guretako ezagunena den
eraikina, argazkikoa, hain justu.
Ikusten den futbol zelaia,
berriz, 1923. urteko sanjuane-
tan eraiki zuten. Erdia ELMA-
rena zen eta beste erdia ELMA-
ren parean zegoen Villa Ampa-

rorena. Ikusten den moduan,
zaldiak daude zelaian; izan
ere, hasieran ganadua eduki-
tzen zuten han. Baina gero
debekatu egin zuten, futbol
jokalariren bat jausiz gero
infekzioren bat hartzeko arris-
kua saihesteko.

Berriemailea:
Jose Mari Uranga



CORSA

OPEL 

TALLERES OLA

Olabarrena auzoa, z/g
Tel.: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47 • BERGARA

TAKOLO AUTOAK, S.L.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn
San Andres auzoa 10-D • Tel.: 943 77 30 10

errebelatu ordaindu errebelatu ordaindu



www.ikatz.es

ERREBELATUAN ESKAINTZA



4 Errebelatu eta 3 ordaindu

Banaka ekarri dezakezuz !

ARRASATEN: Iturrioz,8

errebelatu ordaindu errebelatu ordaindu

errebelatu ordaindu errebelatu ordaindu

errebelatu ordaindu errebelatu ordaindu

sofa
leku

a. eme... interiores



centro
hogar
muebles

grupo



Amuebladora Mondragonesa

- a. eme. interiores, Garibai, 9 ■ ARRASATE ■ Tel.: 79 15 03
- a. eme. sukaldeak, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92
- centro hogar muebles, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92
- sofa leku, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92